



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko abenduaren 7a

117. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Mendabiako Udalaren herrilurretako 101.986,68 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena. (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Jabeldura, ingurumen politikari eta klima-aldaketaren aurkako borrokari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak egina (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua premiatzen da ezgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen erreserba betetzen ote den aztertzeko jarraipen batzorde bat sor dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Adierazpen instituzionala, Hiesaren kontrako nazioarteko eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, Antzoki Sarearen 2010eko balantzeari eta Plan Estrategikoaren egoerari buruzkoa. Román Felones Morrás jaunak egina (8. or.).

—Galdera, Nafarroako kultur azpiegituren kudeaketarako eredu berriari buruzkoa. Román Felones Morrás jaunak egina (9. or.).

—Galdera, Nafarroako Ubidearen Artaxoako zatiari buruzkoa. Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (9. or.).

—Galdera, Galar Zendeako udal dermioan ehiza barruti bat egoteko baimenik ez ematearen arrazoiei buruzkoa. María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (10. or.).

—Galdera, Liztor asiarra (vespa vetulina) detektatzeari buruzkoa. Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (11. or.).

—Galdera, EMPTY enpresarekiko betebeharrak ekonomikoei edo hari ordaindu beharreko kalte-ordainei buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (11. or.).

- Galdera, Segurtasunaren Hirirako aurrekontuei buruzkoa eta aurrekontu horietatik betetakoari eta gastatutakoari buruzkoa. Ana Figueras Castellano andreak egina (12. or.).
- Galdera, Segurtasunaren Hirirako lurren erreserbari buruzkoa. Ana Figueras Castellano andreak egina (12. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduko 5. artikulua-ren aldaketa. (14. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 17.2 artikulua garatzeko Erregelamendua Deklaratzea erabat indardunak direla 2. artikuluko 1. eta 3. idatz-zatiak (15. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Mendabiako Udalaren herrilurretako 101.986,68 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2010eko azaroaren 22an hartutako erabakiaren bidez, Mendabiako Udalaren herrilurretako 101.986,68 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 157. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Mendabiako Udalaren herrilurretako 101.986,68 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

**2.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**3.** Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Foru Lege proiektua, Mendabiako Udalaren herrilurretako 101.986,68 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena.**

### **ZIOEN AZALPENA**

Mendabiako Udalak eskatu du udalerriko herrilurretako 101.986,68 metro koadro onura publikoko deklaratu eta haien desafektazioa egitea, gero saltzeko, ardogintzaren eta kontserben sektorean diharduen Mendavia Conservas Artesanas, S.L. enpresak bere instalazioak bertan jarri eta zabaltzeko aukera izan dezan.

Mendavia Conservas Artesanas, S.L. enpresaren kokapen honek berarekin ekarriko du 80 lanpostu berri progresiboki sortzea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 140. artikuluko 5. idatz-zatian xedaturikoaren arabera, Mendabiako Udalak desafektatzeko asmoa duen eremuak lurzati txikiaren mugak gainditzen dituzenez, foru lege bidez onetsi behar da.

#### **1. artikulua.** Onura publikoaren deklarazioa.

Mendabiako Udalaren herrilurretako 101.986,68 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten da. Eremu hori Mendabiako katastroko 1. poligonoko 1.319, 1.320 eta 1.342 lurzatiaren puska banari dagokie. Lur horiek herrilurtzat joko dira foru lege honetako 2. artikuluko baldintzetan saldu arte.

#### **2. artikulua.** Zuzenean saltzeko baimena.

Mendabiako Udalari baimena ematen zaio aurreko artikuluan aipatutako lurrak saltzeko, ardogintzaren eta kontserben sektorean diharduen Mendavia Conservas Artesanas, S.L. enpresak lur horretan bere instalazioak jarri eta zabaltzeko aukera izan dezan. Kokapen horrekin 80 lanpostu

berri sortuko dira progresiboki, eta enpresak lekua izanzen du gerora are gehiago handitu nahi izanez gero. Baimena ondoko baldintza hauen mendean egonen da:

a) Salmentako akordioaren klausula batek xedatu dezala lurra herri ondarera itzuliko direla, baldin eta haiek desafektatzeko arrazoitzat hartu ziren xedeak desagertzen badira, edo foru lege honetan eta Mendabiako Udalak 2010eko maiatzaren 27an onetsitako baldintza-agirian jasotako kondizioak betetzen ez badira.

b) Itzulketa klausula hori jaso dadila kontratuak formalizatzeko Jabetza Erregistroan inskribatzen diren agiri publikoetan, Mendabiako Udalak 2010eko maiatzaren 27an onetsitako baldintza-agirian aipatzen den bezala.

c) Mendabiako Udalak herrilurretako 101.986,68 metro koadro desafektatzeko 2010eko maiatzaren 27an onetsi zuen baldintza-agirian adierazitako estipulazioak bete daitezela. Eremu hori Mendabiako katastroko 1. poligonoko 1.319, 1.320 eta 1.342 lurzatien puska banari dagokie.

d) Toki entitatearen herri ondarea progresiboki murrizten joan ez dadin, Mendabiako Udalak Mendabia IV eremuko lurzatien berrantolamendutik ateratzen diren ondare-ondasun guztien afektazioa egin dezala, herrilur gisara, 6 hilabeteko epean, foru lege hau onetsi eta biharamunetik hasita. Zehazki 31 finka dira, guztira 168.790,83 metro koadro egiten dutenak.

e) Mendabiako Udalak justifika diezaiola Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuari, aipatutako epearen barrenean, kalifikazio juridikoa egindako aldaketa hori.

**Azken xedapenetako lehena.** Aplikazio eta garapenerako xedapenak.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamuneari hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, ingurumen politikari eta klima-aldaketaren aurkako borrokari buruzkoa.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK ETA IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko jabeldura, ingurumen politikari eta klima-aldaketaren aurkako borrokari buruzkoa.

**2.** Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko azaroren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **JABELDURAREN TESTUA**

Behean sinatzen dugun parlamentariok Osoko Bilkurarako ondoko jabeldura aurkeztu dugu, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatutakoaren babesean:

Aste honetan berean eman da jakitera CCOOK egindako azterlan bat, adierazten duena berotegi-efektuko gasen emisioak % 73,9 igo direla Nafarroan 1990etik 2009ra bitarte. Horrek Espainiako emisioen % 2,02 egiten du.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak berak Parlamentuko batzordean aitortu zuen 2020rako aurreikusten diren emisioak 1990ekoak baino % 72 handiagoak izanen direla, non eta ez diren aparteko neurriak hartzen.

Nafarroako Gobernuak behin eta berriro urratu du Klima Aldaketaren aurkako 2008-2012 Ekintza Plana eta Estrategia onesteari dagokiona, 2007ko irailaren 17an taxutzen hasi zena; alegia, orain dela hiru urte baino gehiago. Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak txosten bat onetsi zuen aho batez 2009ko irailaren 23an, 23 neurri jasotzen zituena gure erkidegoan klima aldaketari aurre egiteko.

Aurrekontua, Nafarroako Gobernuaren “ingurumen arloko kudeaketak” kapituluak % 32 jaitsi du zenbatekoa legegintzaldi honetan, eta 2008an 44 milioi ageri baldin baziren aurrekontuan, 2011rako 30 milioi aurreikusi dira.

Une honetan onespenez fasean da –eztabaida sozial eta politiko handiarekin– Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integratua. Orobat aurreikusi da Nafarroako Gobernuak Mugikortasun Plana eta Nafarroako Energia Plana taxutzea, zeinak etorkizunari begira egituratu beharko baitu energia berriztagarriek, erregai fosiletatik heldu diren energien aurrean, gure erkidegoan duten pisu garrantzitsua.

Hortaz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ingurumen politikari eta klima aldaketaren aurkako borrokari buruzko jabeldura aurkezten diote Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2010eko azaroaren 23an

Foru parlamentariak: Samuel Caro Sádaba eta Ion Erro Armendáriz

## **Mozioa. Horren bidez, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua premiatzen da ezgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen erreserba betetzen ote den aztertzeke jarraipen batzorde bat sor dezan.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua premiatzen baita ezgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen erreserba betetzen ote den aztertzeke jarraipen batzorde bat sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentariak, talde horren eledun gisa eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeke.

Nafarroako Enplegu Zentroen Acemna Elkarteak eginiko azterlanak zenbait helburu zeuzkan, hala nola:

1) Jakitea zein neurritan betetzen den enpresetan ezgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen erreserba, apirilaren 7ko 13/1982 Legeko 38. artikuluari jarraikiz.

2) Identifikatzea zer faktorek eragiten duten pertsona horien laneratzean, bai eta ezgaituen laneratze-mailak hobetzea lortzeko gomendioak edo proposamenak egitea ere.

3) Ordezko neurrien betetze-maila eta aplikazio-maila aztertzea.

Aurkeztu ziren emaitzen artean agertzen ziren, 2009ko urriaren 1ean, kontrolaturiko ezgaituen guztizko kopurua 588 zela; hots, erantzun zuten enpresen guztizko plantillaren % 1,44.

Horrez gain, adierazten zuten jarduera espezializatua zela ezgaituak ez kontratatzeke gehien alegatzen diren arrazoiak bat, eta ondorioztapenen artean, besteak beste, honakoak aipatzen ziren:

A) Ezinduak Gizarteratzeari buruzko Legea (EGL) onetsi ondoren, oraindik ere oso urrun gaude ezarritako helburua erdiestetik.

B) EGLk markatzen duen erreserba-kupoa beteko balitz, une honetan Nafarroako enpresetan ezgaituentzako 393 lanpostu gehiago sortuko lirateke.

C) Beste arrazoi nabarmengarri bat da azterlanean parte hartu duten enpresen % 38k ez duela jasotzen ezgaituen curriculum vitaerik.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua premiatzen du, eta zehazki Nafarroako Enplegu Zerbitzua, afera honetarako jarraipen batzorde bat sor dezan, honako hauek osatua: Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak, sindikatuen ordezkariak (bazterketarik gabe) eta Hezkuntza Bereziko Zentroetako ordezkariak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako enplegu Zerbitzua premiatzen du aintzat har ditzan ezgaituen curriculum vitaeak, balizko lan-eskaintzen kasuan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 19an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Adierazpen instituzionala, Hiesaren kontrako nazioarteko eguna dela-eta.**

### **ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA**

2010eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Aurten ere, Hiesaren Nazioarteko Eguna ospatzen dugu abenduaren 1ean, zeina baliatzen baitugu gaixotasun horri dagokionez gure herrian bizi dugun egoerari buruz ohartarazteko.

Aurrerapen handiak egiten ari dira farmakologiaren arloan, eta horrek, teorian, ahalbidetzen du GIBa edo hiesa duten pertsonak bizitza arrunta egitea eta gizartean erabat integratzea. Baina, tamalez, aurkitzen dutena tentsio giroa da, non GIBarekin lotutako aurreiritzien, estigmaren eta bazterkeriaren ondorioz, aukera gutxiago dituzten erabateko herritartasuna baliatzeko.

Aurten gogorarazi behar dugu Parlamentuak Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsari buruzko Foru Legearen aldaketa eztabaidatuko duela laster, zertarako eta Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eta eskumen esparruan ez deza-ten baliorik edo eragingarritasunik izan aldeetako bat GIB/HIESa edukitzeagatik edo seropositiboa

izateagatik baztertzen duten klausulek, estipulazioek, baldintzek edo itunek. Espero dugu legegintza-ekimen hori ekarpen apal bat izatea GIB/HIESa duten gaixoen diskriminazioak eta estigmak zeharo desagerrarazteko.

Horrekin batera, Nafarroako Parlamentuak berriro goraipatu eta eskertu nahi du administrazio publiko guztiek, osasun arloko profesionalak eta gobernuz kanpoko erakundeek nahiz gizarte zibileko beste egitura batzuek (hala nola Hiesaren aurkako Nafarroako Batzorde Herritarrak eta Sare Elkarteak) gaixotasun hau desagerrarazteko eginko lana.

Azkenik, Nafarroako Parlamentuak herritar guztiei dei egiten die abenduaren 1a ardatz gisa harturik antolatzen diren jarduera guztietan parte hartzera eta pertsona horien diskriminazio eta estigmatizazioaren aurka borrokatzera, giza eskubideen urraketa den aldetik.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Antzoki Sarearen 2010eko balantzeari eta Plan Estrategikoaren egoerari buruzkoa.***ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Antzoki Sarearen 2010eko balantzeari eta Plan Estrategikoaren egoerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren

191. artikuluan xedatuaren babesean, Antzoki Sarearen 2010eko balantzeari buruzko honako galdera hau egiten du, kasuko batzordean ahoz erantzun dadin:

Antzoki Sarea da Gobernuaren kultur ekintza-  
ren esparruko programarik garrantzitsuenetariko bat. Aurreko urteetan aurrekontuen arloan eta sarea abian jartzeari dagokionez izandako zailtasunen ostean, kontseilariaren esanetan 2010ak plan estrategikoa taxutzeko urtea eta, horrenbestez, behin betikoz finkatzeko urtea izan behar zukeen.

Hori dela eta, batzordean ondokoari ahoz erantzutea nahi dut.

• Nafarroako Gobernuaren iritziz, zein da Antzoki Sarearen 2010eko balantzea? Zertan da Antzoki Sarearen Plan Estrategikoaren prestaketa?

Iruñean, 2010eko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás



## **Galdera, Nafarroako kultur azpiegituren kudeaketarako eredu berriari buruzkoa.**

### *ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako kultur azpiegituren kudeaketarako eredu berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 191. artikuluan xedatuaren babesean, Nafarroako kultur azpiegituren kudeaketarako eredu berriari buruzko honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin.

Iragan azaroaren 23an Nafarroako Gobernuak prentsa kabineteak eta eskualdeko zenbait hedabidek jaso zuten berriaren arabera, Nafarroako Gobernuak Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariak Kulturako Konferentzia Sektorialaren bileran parte hartu zuen, Kultura Ministerioko ordezkariekin eta autonomia erkidegoetako arduradunekin batera.

Informazioan adierazten zen azterketa eta proposamenak egiteko lan-talde bat sortzea onetsi zela konferentzian, kultur azpiegituren kudeaketarako eredu berri bati dagokionez, eta Nafarroa horretan sartuta egonen dela. “Nafarroa –adierazi zuen kontseilariak– aspalditik ari da hausnarketa egiten kultur azpiegituren kudeaketa eredu berri bati buruz.”

Ekimen horrek duen interesa ikusita, ondokoa jakin nahi da:

- Zehatz al ditzakezu hausnarketa prozesu horren emaitzen ezaugarri nagusiak?

Iruñean, 2010eko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, Nafarroako Ubidearen Artaxoako zatiari buruzkoa.**

### *AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen Artaxoako zatiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Erregelamenduari babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Nork ordaindu zuen edo ordaintzen du Nafarroako Ubidea Artaxoa aldeangaltzen ari den ur guztia?

2. Ubidearen obrak egitean zergatik ez zen jarri asfaltozko geruza Artaxoan?

3. Zenbat diru, eta aurrekontuko zer kontusailetakoa, erabili du Nafarroako Gobernuak Ubidea Artaxoan konpontzeko?

Iruñean, 2010eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, Galar Zendeako udal dermioan ehiza barruti bat egoteko baimenik ez ematearen arrazoiei buruzkoa.**

*MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, Galar Zendeako udal dermioan ehiza barruti bat egoteko baimenik ez ematearen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

- Zergatik ez da baimenik eman Galar Zendeako udal dermioko 8. poligonoan ehiza barruti bat egoteko? Departamentuak ba al du asmorik egoteko eta data jakin batzuetan dermio horretan ehiza baimentzeko egutegi bat prestatzeko? Hala baldin bada, Departamentuak ehiza baimentzeko egoteko eta baldintzak zehatz al ditzake?

Iruñean, 2010eko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

## **Galdera, Liztor asiarra (vespa vetulina) detektatzeari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Liztor asiarra (vespa vetulina) detektatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Nafarroako Foru Komunitatean detektatu al da liztor asiar beldurgarria (vespa velutina)?

- Hala baldin bada, Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu ditu? Zer eragin izaten ari da espezie hori erlauntzetan?

Iruñean, 2010eko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, EMPTY enpresarekiko betebeharrak ekonomikoei edo hari ordaindu beharreko kalte-ordainei buruzkoa.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, EMPTY enpresarekiko betebeharrak ekonomikoei edo hari ordaindu beharreko kalte-ordainei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak gaur egunzer betebeharrak ekonomiko edo kalte-ordain dituzten hitzartuta Empty enpresarekin? Entzieroaren eta Sanferminen Museoa hurrengo aurrekontu ekitaldietan egiten ez baldin bada, Nafarroako Gobernuak inolako betebeharrak ekonomikori aurre egin beharko al lioke?

Iruñean, 2010eko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Segurtasunaren Hirirako aurrekontuei buruzkoa eta aurrekontu horietatik betetakoari eta gastatutakoari buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Segurtasunaren Hirirako aurrekontuei buruzkoa eta aurrekontu horietatik betetakoari eta gastatutakoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Errege-

lamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko.

Nafarroa 2012 Planean jasotako ekintzen artean dago Segurtasunaren Hiriri dagokiona.

Nafarroa 2012 Planaren dokumentuan, 47. jarduketan, bere garaietan, 40.000.000 euroko aurrekontua jasotzen zen, geroago 89.000.000 eurotaraino zabaldu zena.

Alabaina, Segurtasunaren Hirirako garapen-lanei dagokienez, itxura ematen du gastuak gorakada nabarmena ari direla izaten, aurrekontuan jasotako zenbatekoa argiro gaitzertzeraino.

Segurtasunaren Hirirako gaur egun bete den lanari dagokionez, zenbateko aldea dago aurrekontuan jasotakoaren eta betetze-lan horretan gastatutakoaren artean?

Iruñean, 2010eko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Segurtasunaren Hirirako lurren erreserbari buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Segurtasunaren Hirirako lurren erreserbari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko.

Nafarroa 2012 Planean jasotako ekintzen artean dago Segurtasunaren Hiriri dagokiona.

Nafarroa 2012 Planeko 47. ekintzan 1,5 milioi metro koadro esleitzen zaizkio Segurtasunaren Hiriri, non Barne Zuzendaritza Nagusiarekin lotutako zenbait eraikin eta instalazio publiko, zerbitzu eta administrazio-unitate paratuko baitira.

Halere, Segurtasunaren Hiria garatzeko lanetako plano topografikoen arabera, hori baino askoz ere handiagoa da erreserba.

Baldin eta 1,5 milioi metro koadroko ekintza bat aurreikusi bada, zerk eragin du 2.385.671,16

metro koadro erreserbatzea Segurtasunaren Hiria paratzeko?

Iruñean, 2010eko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

---

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduko 5. artikulua aldaketa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2009ko maiatzaren 22an onetsitako eta 2009ko ekainaren 3ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren aldaketari jarraikiz, lerrokada bat gehitu zaio Langileen Estatutuko 26.3 artikuluari, merezimenduen lehiaketetan proba praktikoa eginen dela jasotzen duena, Nafarroako Parlamentuko ordezkariak eta Langileen Batzordeak 2008tik 2011ra bitarteko sinatutako akordioak (9.a) atala aplikatze aldera.

Legelari nagusiaren txostena ikusita eta Langileen Batzordearekin bat, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 34. artikulua eta lehen xedapen gehigarriarekin bat, eta kontuan hartuta estatutu horretako 26. artikulua testu indarduna, ondokoa ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduko 5. artikulua aldaketa onestea. Testu berria ondotik azaltzen da.

**2.** Erabaki hau eta onetsitako aldaketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduko 5. artikulua aldaketa.**

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduko 5. artikuluko 2. idatz-zatiak ondoko testua izanen du:

“2. Lehiaketetan orobat sartuko da lanpostuaren edukari eta eginkizunei buruzko proba praktikoa baztertzaila bat eta Nafarroako Parlamentuaren gaineko ezagutzari buruzkoa. Proba hori ariketa bat edo gehiago egitean datza, eta hartan gehienez ere hogeita puntu lortu ahal dira. Proba gainditu ahal izateko, gutxienez ere hamar puntu lortu beharko dira.”

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 17.2 artikulua garatzeko Erregelamendua**

### **Deklaratzea erabat indardunak direla 2. artikuluko 1. eta 3. idatz-zatiak**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2007ko otsailaren 13ko 77/2007 epaiaren bidez deklaratu zen deusezako zirela Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamenduko 2.3 artikulua eta, horren aurrekari den neurrian, 2.1 artikulua. Epai Tomás Mena García jaunak aurkeztutako 203/2006 errekurtsoren kariatara eman zen. Irailaren 4ko Autoaren bidez berretsitako 2007ko maiatzaren 14ko Autoaren bidez, Salak onartu zuen aipatu epaia behin-behinekoz beteaztea, indarrrik gabe utzita aipatu artikulua, behin-behinekoz eta Parlamentuak aurkeztutako 1722/2007 zenbakiko kasazio-errekurtsoa ebatzi arte. 2007ko maiatzaren 14ko Autoa Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2007ko irailaren 17an hartutako erabakiaren bidez betearazi zen.

Parlamentuak jarritako 1722/2007 zenbakiko kasazio-errekurtsoren kariatara Auzitegi Gorenak 2010eko irailaren 30ean emandako epaiak deklaratu du, aurrena, onartzen duela 1722/2007 zenbakiko kasazio-errekurtsoa, zeina Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien

Salaren 77/2007 epaiaren aurka jarri baitzen, eta, hurrena, ezesten duela 203/2006 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zeina Nafarroako Parlamentuaren Mahaiaren 2006ko otsailaren 6ko Erabakiaren aurka jarri baitzen –erabaki haren bidez, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamenduen aldaketa onetsi zen–.

Epaiaren ziurtagiria ikusita, eta Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako idazkariak igorri eta iragan azaroaren 12an erregistratutako ofizioarekin bat eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeko 104. artikuluari jarraikiz, ondokoa ERABAKI DA:

**1.** Mahaiaren 2007ko irailaren 17ko Erabakia indargabetzea eta deklaratu erabat indardunak direla Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua gartzeko Erregelamenduko 2. artikuluko 1. eta 3. idatz-zatiak.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean.

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

